



Busturiko  
Udala



# Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea

DATA / FECHA: 2020/01/22

HASIERA / INICIO: 20:45

AMAIERA / FINAL: 20:50

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA / ALCALDE

Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

M.<sup>a</sup> Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Gizarte Etxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa lehen deialdian egiteko.

Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzako idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatutako gairerrendaren arabera, eta akordio-proposamen hauek egin ziren:

En el Gizarte Etxea de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria.

Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

#### **1.- Aurreko saioko akta.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, 2020ko urtarrilaren 8ko saioko akta onartu zuen.

#### **1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 8 de enero de 2020.

#### **2.- Kontratua MURGIBEekin.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Murgibe enpresarekin zerbitzu-kontratu txikia izenpetzea, Busturiko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Plana egiteko, zeina 2020an garatuko den, 9.075 €-ko aurrekontuarekin (BEZa barne).

#### **2.º.- Contrato con MURGIBE.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó suscribir un contrato menor de servicios con la empresa Murgibe para la elaboración del II Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Busturia, a desarrollar durante el año 2020 y con un presupuesto de 9.075 € (IVA incluido).

#### **3.- Emakunderen dirulaguntzak.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak Emakunderen Zuzendariaren 2019ko abenduaren 17ko Ebazpenaren berri izan zuen, zeinaren arabera 2020an emakume eta gizonen arteko berdintasunerako diagnosiak edota planak osatzeko eta ebaluatzeko EAEko udalerrietarako, kuadrilletarako eta mankomunitateetarako dirulaguntzen deialdia egin den.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, Busturian Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako II. Plana egiteko dirulaguntza eskatzea.

#### **3.º.- Subvenciones del Instituto Vasco de la Mujer-Emakunde.-**

La Junta de Gobierno Local fue informada de la Resolución de 17 de diciembre de 2019, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se convoca la concesión de subvenciones, en el ejercicio 2020, a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la Comunidad Autónoma de Euskadi, destinadas a proporcionar la asistencia técnica necesaria para la realización de diagnósticos y/o elaboración y evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó solicitar subvención para la elaboración del II Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Busturia.

#### **4.- "The walk on project (WOP)" proiekturako baimen-eskaera.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, aldeko txostena egitea EAEko Kosta Mugapenak eginiko txosten-eskaerari erantzuteko, "The walk on project" (WOP) ekimenaren baitako WOP Challenge delakoaren bigarren edizioari dagokionez, zeina 2020ko ekainaren 20an eta 21ean egingo den.

#### **4.º.- Solicitud de autorización para "The walk on project (WOP).-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó informar favorablemente sobre la petición de informe remitido por la Demarcación de Costas del País Vasco, en relación a la segunda edición del WOP Challenge, proyecto de "The walk on Project" (WOP), los días 20 y 21 de junio de 2020.

## 5.- Busturialdea Tenis Kirol Elkartearen eskaera.-

Kontuan hartuta Busturialdea Tenis Kirol Elkarteak aurkezturiko eskaera, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, larunbatetan tenis-pistetan prestakuntza-ikastaroak emateko ordutegi hau ezartzea haiek erreserbatzeko:

- pista bat 11:00etatik 12:00etara
- beste pista bat 10:45etik 13:15era

## 5.º.- Solicitud de Busturialdea Tenis Kirol Elkartea.-

Vista la solicitud presentada por Busturialdea Tenis Kirol Elkartea, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar que el horario de reserva de las pistas de tenis los sábados, para la impartición de los cursos de formación sea el siguiente:

- una pista de 11:00 a 12:00
- otra pista de 10:45 a 13:15

## 6.- J. R. Z.ren aparkaleku-txartela.-

Kontuan hartuta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak igorririko kontrako txostena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen J. R. Z.k eskaturiko ezinduentzako aparkaleku-txartela ukatzea.

## 6.º.- Tarjeta de estacionamiento J. R. Z.-

Visto el informe desfavorable emitido por el Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegar la tarjeta de estacionamiento para minusválidos, solicitada por J. R. Z.

## 7.- R. O. A.ren eskaera.-

R. O. A.k baimena eskatu du otsailaren 3an Busturiko Tenis Pubean ikuskizun bat eskaintzeko. Ikuskizuna emakume-talde batek egingo du, 13:00etatik 18:00etara. Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, ikuskizuna egiteko baimena ematea, baldin eta establezimenduetako ordutegiei buruzko araudia eta lokalaren irekiera-baldintzak betetzen baditu.

## 7.º.- Solicitud de R. O. A.-

Vista la solicitud de R. O. A. para la celebración, el día 3 de febrero, de un espectáculo en el Pub Tenis de Busturia, consistente en la actuación de un grupo de mujeres de 13:00 a 18:00 horas, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar dicho espectáculo, con la condición de que se respete la normativa de horarios de establecimientos y las condiciones de apertura del local.

## 8.- Zain dezagun Urdaibairen idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak Zain dezagun Urdaibaik aurkezturiko idazkiaren berri izan zuen, zeinaren bidez hirigintza-arloko akzio publikoa bideratu duen Altamira auzoko Bidebarri Toki-Alai etxean eginiko lanek urraturiko hirigintza-legezketasuna babesteko.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, horren berri aipatu lanen sustatzailea den K. F. G.ri ematea, 10 eguneko epean, egoki deritzen alegazioak egin ditzan.

## 8.º.- Escrito de Zain Dezagun Urdaibai.-

La Junta de Gobierno Local fue informada del escrito presentado por Zain Dezagun Urdaibai interponiendo acción pública urbanística para la protección de la legalidad urbanística por las obras realizadas en la casa Bidebarri Toki-Alai del barrio de Altamira.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dar traslado de la misma al promotor de las obras, K. F. G., concediéndole un plazo de 10 días para que formule las alegaciones que estime oportunas.

## 9.- Sukaldaritza-ikastaroa.-

Adingabeentzako sukaldaritza-ikastaroan izandako izen-emateak ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, M. J. M. A. begirale-lanetarako kontratatzea, otsailaren 1etik martxoaren 28ra, larunbatetan, 10:30etik 12:30era.

## 9.º.- Curso de cocina.

Vistas las inscripciones realizadas para el curso de cocina destinado a menores, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó organizarlo contratando como monitora a M. J. M. A. durante el periodo 1 de febrero a 28 de marzo, los días sábados y con el horario 10,30 a 12,30.



Busturiko  
Udala



# Akta

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, akta hau idatzi da, Alkate jaunak eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dudanak, sinatu duguna.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea / El Alcalde,

Idazkaria / El Secretario,

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez